

EXPEDIENTEA: 4/2025

EXPEDIENTE 4/2025

ERABAKIA, 2026ko MAIATZAREN 19koa, PROZEDURA GELDIARAZTEA ERABAKITZEARI BURUZKOA, ERTZAINTZAK VITORIA-GASTEIZen 2025eko URRIAREN 12an EGINDAKO JARDUKETA ZELA ETA ABIARAZITAKOA, EKINTZA HORRETAN ERTZAINEK USTEZ JAURTIKITAKO FOAM BALA BATEK AURPEGIAN JOTZEAREN ONDORIOZ GIZONEZKO BATEK ZAURIA IZAN ZUELAKO

ACUERDO DE 19 DE MAYO DE 2026, POR EL QUE SE ACUERDA LA SUSPENSIÓN DEL PROCEDIMIENTO RELATIVO A LA ACTUACIÓN DE LA ERTZAINTZA DESARROLLADA EL 12 DE OCTUBRE DE 2025 EN VITORIA-GASTEIZ, EN EL TRANSCURSO DE LA CUAL UN VARÓN RESULTÓ HERIDO EN LA CARA COMO EVENTUAL CONSECUENCIA DEL IMPACTO DE UN PROYECTIL DE FOAM REALIZADO POR PERSONAL POLICIAL

I. AURREKARIAK

1º.- Ertzaintzak 2025eko urriaren 12an Vitoria-Gasteizen burututako jarduketaren berri izan genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean (aurrerantzean, Batzordea edo EAEPKGB), Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak 2025eko urriaren 16an bidalitako jakinarazpenaren bidez. Jarduketa hori Falange Española erakundeak jakinarazitako elkarretaratzea zela eta ezarritako segurtasun dispositiboaren baitan egin zuten.

Polizia-jarduketa hori 4/2025 espedientearen esparruan aztertzea erabaki zen Batzordean. Horretarako, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginaren 17.2.b) artikulua emandako eskumena baliatu genuen.

2º.- Aipatutako jakinarazpenaren arabera:

“... Falange Española erakundeak Vitoria-Gasteizen jakinarazitako elkarretaratzea zela-eta, Ertzaintzak ezarritako segurtasun-dispositiboa burutu bitartean, kontramaneifestazio bat heldu zen bertara. Hala, objektuak jaurtiki zituzten eta liskar fisiko larriak egon ziren, askotariko kalteak eraginez. Egoeraren ondorioz, ertzainek istiluen aurkako materiala erabiltzea eskatu behar izan zuten”.

I. ANTECEDENTES

1º.- Mediante comunicación remitida con fecha de 16 de octubre de 2025 por el Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco —en adelante, la Comisión o la CCTPPV— tuvo conocimiento de la actuación desarrollada por la Ertzaintza el día 12 de octubre de 2025 en Vitoria-Gasteiz, en el transcurso de un dispositivo de seguridad establecido con ocasión de una concentración comunicada por Falange Española.

La Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el artículo 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, acordó proceder al estudio de dicha actuación policial en el marco del Expediente 4/2025.

2º.- Según la comunicación citada:

“...en el transcurso de un dispositivo de seguridad de la Ertzaintza establecido con ocasión de una concentración comunicada por parte de Falange española en la localidad de Vitoria-Gasteiz, una contramanifestación se ha dirigido al lugar produciéndose lanzamiento de objetos, graves enfrentamientos físicos y daños diversos, que han obligado a agentes de la Ertzaintza a la intervención con material antidisturbios”.

Jakinarazpen berean honakoa esan zuten:

“... antza denez, istilu horietan, eta komunikabideetan agertutako informazioen arabera, «Ertzaintzak metro gutxira eta aurpegira jaurtikitako pilotakada batek gizonezko bat zauritu zuen eta, horren ondorioz, baraila hautsi zitzaion, hortz bat galduta eta beste bi lekualdatuta.”

Era berean, ohartarazi zutenez, Barne Arazoetako Burutzak ikerketa bat abiarazi zuen gertatutakoa argitze aldera.

3º.- Aurreko puntuan aipatutako polizia-eskuhartzea aztertzeko, Batzordeak honako eskaera hauek luzatu zizkion 2025eko urriaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzari:

“a) Jakinaraztea Batzorde honi eginbide judizialik hasi ote den Segurtasun sailburuaren jakinarazpenean aipatutako polizia-jarduketa ikertzeko eta, hala izanez gero, adieraztea horiek gauzatu diren epaitegia eta jasotako erreferentzia-zenbakia.

b) Helaraztea Batzorde honi aipatutako polizia-jarduketan gertatutakoa argitzeko asmoz Ertzaintzaren Barne Arazoetako Burutzak hasitako barne-ikerketari buruzko eginbideen kopia.

c) Helaraztea Batzorde honi polizia-jarduketa horri lotutako atestatuaren kopia, berorren ondorioz jarri bazuten zigor arloko salaketa gertakarien tokiko Ertzain-etxean.

En la misma comunicación se informó de que:

“...al parecer, en el transcurso de estos incidentes, y según informaciones aparecidas en los medios de comunicación, un varón resultó herido sufriendo la ‘rotura de mandíbula, pérdida de un diente y desplazamiento de otros dos como consecuencia de un pelotazo de la Ertzaintza, a escasos metros y lanzado a la cara’ realizado por personal policial”.

Asimismo, se hizo constar que la Jefatura de Asuntos Internos había abierto una investigación para el esclarecimiento de lo sucedido.

3º.- A fin de proceder a la realización del estudio sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acordó, en fecha 21 de octubre de 2025, interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

“a) Se informe a esta Comisión sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación en relación con la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Sr. Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signatura de referencia de las mismas.

b) Se dé traslado a esta Comisión de una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial referenciada.

c) Para el supuesto de que la actuación policial descrita haya dado lugar a la interposición de denuncia penal ante la comisaría de la Ertzaintza correspondiente al lugar en que ocurrieron los hechos, se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado o atestados policiales elaborados en relación con dicha actuación policial.



d) Jakinaraztea Batzorde honi esku hartu zuten ertzainek soineko kamerarik ote zeramaten haien jarduketa burutu bitartean eta, hala gertatu bazen, ea kamerak piztuta zeuden esku-hartze hartan.

Era berean, eskatu nahi dugu Ertzaintzaren Zuzendaritzak harremanetarako norbait izendatzea, Batzorde honekiko solaskide egokia ezartzeko, espedientearen arinago izapidetzeko.”

4º.- 2026ko maiatzaren 8ko jakinarazpenaren bidez, Barne Arazoetako Burutza Operatiboak erantzun zion EAEPKGBri aipatutakoak helarazteko. Hala, Batzordeari alde aurretik emandako informazioa osatu zuen.

Jakinarazpen horretan adierazitakoaren arabera, bide ofizialetatik kanpo gertakariaren berri izan ondoren eta zauritutako gizonak Vitoria-Gasteizko epaitegietan salaketa aurkeztu zuela jakindakoan, [REDACTED] kodedun atestatua izapidetzeari ekin zion Barne Arazoetako Burutzak eta Vitoria-Gasteizko Epaitegira bidali zuen 2026ko otsailaren 13an.

Era berean, jakinarazi zutenez, metatu egin ziren aurreko atestatu horretan ikertutako gertaerak eta Vitoria-Gasteizko Ertzaintzak desordena publikoengatik ikertutakoak - [REDACTED] atestatuari dagozkionak-honako prozedura honetan: [REDACTED] Aurretiazko Eginbideak. Izapidearen ardura Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiaren 4 zenbakidun Instrukzio Atalak dauka (eta gaur egun izapidetzen ari da).

5º.- Barne Arazoetako Burutzak hasitako barne-ikerketaren eginbideen kopia Batzorde honi bidaltzeko eskaerari dagokionez, 2026ko maiatzaren 8ko jakinarazpenak dioenaren arabera, Barne Arazoetako Burutzak baimena eskatu zion aipatutako Epaitegiari 2026ko otsailaren 20an [REDACTED] kodepean Burutza horrek ikertutako eginbideen kopia Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren

d) Se informe a esta Comisión si los agentes de la Ertzaintza intervinientes portaban cámaras de cuerpo durante la intervención y, en caso afirmativo, si las mismas llegaron a activarse durante el desarrollo de la intervención.

Se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente”.

4º.- Mediante comunicación de fecha 8 de mayo de 2026, el Jefe Operativo de Asuntos Internos dio respuesta para su traslado a la CCTPPV y complementó la información previamente facilitada a la Comisión.

En dicha comunicación se indica que, tras tener conocimiento extraoficial del hecho y de que el varón herido había presentado denuncia en los Juzgados de Vitoria-Gasteiz, la Jefatura de Asuntos Internos inició la tramitación del atestado de referencia [REDACTED], que fue remitido al Juzgado de Vitoria-Gasteiz en fecha 13 de febrero de 2026.

Asimismo, se informa de que tanto los hechos investigados en dicho atestado como los investigados por la Ertzaintza de Vitoria-Gasteiz por desórdenes públicos —atestado de referencia [REDACTED]— se acumularon en el procedimiento de Diligencias Previas [REDACTED], de la Sección de Instrucción del Tribunal de Instancia de Vitoria-Gasteiz, Plaza nº4, actualmente en tramitación.

5º.- En relación con la solicitud de remisión a esta Comisión de copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos, la comunicación de 8 de mayo de 2026 informa de que, en fecha 20 de febrero de 2026, la Jefatura de Asuntos Internos solicitó al mencionado Juzgado autorización para remitir a la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País

Kontrol eta Gardentasun Batzordeari bidaltzeko.

6º.- Jakinarazpen horren arabera, 2026ko otsailaren 24ko erabakiaren bidez, epaitegiko magistratu titularrak honakoa ebatzi zuen (Avantius programarekin izandako arazoengatik Barne Arazoetako Burutza 2026ko maiatzaren 7an formalki jasotakoa):

“zigor arloko auzi guztiak erreserbadunak edo isilpekoak dira (eginbideen isilpekotasuna adosteko aukera dagoen arren). Hala, agertutako alderdiek eta Ministerio Fiskalak soilik eskura ditzakete aipatutakoak. Gainera, ezin da bermatu prozedura honen bilakaeran eraginik ez izatea, uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 19. artikuluan eta horrekin bat datozenetan xedatutakoa gorabehera. Ondorioz, behar denerako eta instrukziogilea naizen aldetik, auzia epaitegian ikertu bitartean atestatua Gardentasun Batzordera bideratzea komenigarritzat jotzen ez dugula adierazi nahi dut. Edonola ere, organo horrek ikerketa hau amaitutakoan auzia ikertzeari ekiteko aukera izango du, jakina denez”.

7º.- Ertzaintza zigor arloko salaketarik jarri ote duten jakinarazteko eskaerari dagokionez, Barne Arazoetarako Buru Operatiboak jakinarazitakoaren arabera, zigor arloko salaketa Vitoria-Gasteizko Epaitegietan jarri zuten, baina ez Ertzaintza.

8º.- Esku hartu zuten ertzainek jarduketan soineko kamerarik ba ote zeramaten eta kamera horiek piztuta ote zeuden argitzeko eskaerari dagokionez, Barne Arazoetako buru operatiboak jakinarazpenean adierazi duenez, gai horri buruz aurreko jakinarazpenean erantzun zioten Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari.

Vasco copia de las diligencias de investigación desarrolladas por dicha Jefatura con la referencia [REDACTED].

6º.- Según dicha comunicación, por providencia de fecha 24 de febrero de 2026, recibida formalmente en la Jefatura de Asuntos Internos el 7 de mayo de 2026 por problemas con Avantius, la Magistrada titular del Juzgado valoró que:

“todas las causas penales son reservadas o secretas (sin perjuicio de la posibilidad de acordar el secreto de las actuaciones como tal) y accesibles por tanto tan solo para las partes personadas y el Ministerio Fiscal y no pudiendo garantizarse que puedan eventualmente producirse interferencias en el desarrollo del presente procedimiento, a pesar de las previsiones del artículo 19 y concordantes del Decreto Legislativo 1/2020 de 22 de julio, esta Instructora comunica a los efectos oportunos que no se considera conveniente la derivación del atestado a la Comisión de Transparencia en tanto en cuanto esta causa permanezca en investigación judicial; todo ello obviamente sin perjuicio de las posibilidades de investigación por dicho órgano una vez la presente investigación haya finalizado”.

7º.- Respecto de la solicitud relativa a la eventual interposición de denuncia penal ante la Ertzaintza, la comunicación del Jefe Operativo de Asuntos Internos señala que el herido interpuso denuncia penal en los Juzgados de Vitoria-Gasteiz, no ante la Ertzaintza.

8º.- Por lo que se refiere a la solicitud relativa a si los agentes de la Ertzaintza intervinientes portaban cámaras de cuerpo durante la intervención y si las mismas llegaron a activarse, la comunicación del Jefe Operativo de Asuntos Internos indica que dicha cuestión ya fue respondida en la anterior comunicación a la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco.



II. KONTUAN HARTZEKOAK

Lehenengoa.- Batzordearen txostenak honako hauek laburbildu behar ditu (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 20. artikulua arabera): kasuaren inguruabarrak; egindako jarduketak; polizia-jarduketaren zuzentasuna ebaluatzea, indarreko arau, estandar, prozedura eta protokoloen arabera; azpian dauden arazoak aztertzea; eta, hala badagokio, gomendio bat luzatzea, haren bitartez zuzentzeko, aurrea hartzeko edo hobetzeko neurrien proposamena jasotzeki begira, asmo bikoitzaz: gabeziei aurre egitea edo antzemandako arazoak berriro gerta ez daitezela lortzea.

Lan hori egiteko, ertzainen jarduketari buruzko ahalik eta informaziorik osatuena eduki edo eskuratu behar du EAEPKGBk. Hala ere, orain arte, Batzordeak ofizialki ezagutu duen informazioak ez du kasu honen inguruabar guztiak beharrezko zorroztasunez berrosatzeko aukera eskaini.

Honako agirien berri izan dugu Batzordean Segurtasun sailburuaren 2025eko urriaren 16ko jakinarazpena; 2025eko urriaren 21eko erabakia; eta Barne Arazoetako Burutzaren 2026ko maiatzaren 8ko jakinarazpena. Azken horretan azaltzen dira, halaber, hurrengo eginbide hauek: [redacted] kodedun atestatua; [redacted] kodedun atestatua; eta [redacted] aurretiazko eginbideen prozedura, Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiaren 4. Instrukzio Atalarena.

Hala ere, Batzordeak ez dauka polizia-atestatuak, ezta Barne Arazoetako Burutzak prestatutako barne-eginbiderik ere, epaitegitik ukatu egin diotelako halakoak bidaltzea, auzia ikerketa judicialpean dagoen bitartean. Ez du, beraz, informazio osorik honako alderdi hauei buruz: gertakariak; inplikaturako bizilagunak; lekukoen eta kaltetuen aitorpenak; jasotako frogak edo zantzuak; polizia-jarduketaren sekuentzia osoa; erabilitako materiala; balizko tiroaren distantzia; esku hartu zuen unitatea;

II. CONSIDERACIONES

Primera.- De acuerdo con el artículo 20 de la Ley de Policía del País Vasco, el informe de la Comisión ha de resumir las circunstancias del caso; las actuaciones realizadas; evaluar la corrección de la actuación policial conforme a las normas, estándares, procedimientos y protocolos de actuación vigentes; analizar los problemas subyacentes; y formular una recomendación, que puede incluir, en su caso, la propuesta de medidas correctoras, preventivas o de mejora para hacer frente a las carencias o para evitar que se repitan los problemas detectados.

Para realizar esa labor, la CCTPPV ha de disponer o procurarse la información más completa que sea posible sobre la actuación policial. Sin embargo, hasta la fecha, la información oficialmente conocida por la Comisión no permite reconstruir con el rigor necesario la totalidad de las circunstancias del caso.

La Comisión conoce la comunicación del Consejero de Seguridad de 16 de octubre de 2025, el acuerdo de 21 de octubre de 2025 y la comunicación de la Jefatura de Asuntos Internos de 8 de mayo de 2026. Esta última identifica la existencia del atestado de referencia [redacted], del atestado de referencia [redacted], y del procedimiento de Diligencias Previas [redacted], de la Sección de Instrucción del Tribunal de Instancia de Vitoria-Gasteiz, Plaza nº4.

No obstante, la Comisión no dispone del atestado policial ni de las diligencias internas desarrolladas por la Jefatura de Asuntos Internos, por haber sido denegada judicialmente su remisión mientras la causa permanezca en investigación judicial. Tampoco dispone, por tanto, de la información completa sobre los hechos, las personas implicadas, las declaraciones de testigos y afectados, las pruebas o indicios recogidos, la secuencia íntegra de la actuación policial, el material

eta, azkenik, polizia-jardunaren zuzentasuna zorrotz ebaluatzeko behar diren gainerako inguruabarrak.

Argi dagoenez, polizia-atestatua eta gertakariekin zerikusia duten ikerketaren eginbideak eskuratzeko aukerarik izan gabe, EAEPKGBk ezin ditu kasu honen inguruabarrak laburbildu, gertatutakoari buruzko informazio nagusia falta zaiolako. Era berean, ezin ditu polizia-jarduketaren zuzentasuna ebaluatu eta ez du gainerako alderdiei gutxieneko zorroztasun eta fidagarritasunarekin heltzeko modurik, EAEPLren 20. artikulua agintzen dion bezala.

Bigarrena.- Ikertzeari eusteko asmoz eta txostena osatzeari begira, Batzordeak gai hori bere kabuz aztertzei aukerari dagokionez, EAEPLren 19.4 eta 5 artikulua esandakoa kontuan hartu behar dugu.

Manu horretan aurreikusi da zigor edo diziplina arloko ikerketa abian egoteko aukera, Batzordeak gertakariak aztertu eta horiei buruzko txostena egiten hasi behar duenerako.

Aurreikuspen hori erabat zentzuzkoa da, horietako bakoitzak bestelako helburua duelako. Zigor eta diziplina arloko ikerketen xedea bikoitza da: alde batetik, eremu horietako araudia hausten duen jokabiderik egon den aztertzea, ondoriozko zigor edo zehapenekin batera; eta bestetik, erantzukizun pertsonalak eskatzea, hala badagokio. Biak prozedura espezifikoaren barruan daude eta haien bitartez polizia-jarduketa jakin bateko jokabideen egitateak zehazten dira, haien larritasunarekin batera. Horrez gain, epaitutakoaren aitortzea entzutea eta defentsarako duten eskubidea bermatzen da, errugabetasun-presuntzioaren printzipio konstituzionala betetzeko.

utilizado, la distancia del eventual disparo, la unidad interviniente y las demás circunstancias necesarias para evaluar con rigor la corrección de la actuación policial.

Es evidente que, sin acceso al atestado policial y a las diligencias de investigación relacionadas con los hechos, la CCTPPV no está en condiciones de resumir las circunstancias de un caso del que le falta la información principal sobre lo sucedido y, menos aún, de evaluar la corrección de la actuación policial y abordar con el mínimo rigor y fiabilidad los demás extremos que requiere el artículo 20 LPPV.

Segunda.- En cuanto a la posibilidad de que la propia Comisión haga por su cuenta indagaciones conducentes a la averiguación de los extremos señalados en la consideración anterior para avanzar en su investigación y emitir su informe, es necesario tener presente el artículo 19.4 y 5 LPPV.

Este precepto contempla el supuesto de que sobre los hechos que deba estudiar la Comisión y emitir su informe esté ya en curso una investigación penal o disciplinaria.

Tal previsión tiene pleno sentido dada la diferente finalidad de cada una de ellas. Las investigaciones penales y disciplinarias se dirigen a la averiguación de conductas constitutivas de infracciones penales o disciplinarias a las que están aparejadas las correspondientes penas o sanciones y, en su caso, a la consecuente exigencia de responsabilidades personales. Ambas forman parte de procedimientos específicos que, al tiempo que buscan establecer los hechos y la gravedad de las conductas registradas en una actuación policial, garantizan la audiencia y el derecho de defensa de las concretas personas a las que se les instruyan, en observancia del principio constitucional de presunción de inocencia.



Batzorde honen eginkizuna beste eremu batean kokatuta dago eta deontologiari dagokio, ez zigor edo diziiplina arloko legezkotasunari. Bere helburua ez da -eta ezin da izan- erantzukizun pertsonalak argitzea eta horiek bete ez izana zigortzea. Aitzitik, jokabide edo ohitura errepikakorrak identifikatu nahi ditu, polizia-jarduketa jakin bati buruzko kanpo-azterketaren ondorioz agerian gera daitezkeenak, horiek poliziaren kode deontologikoarekin bat ez datozenean edo eskubideak urratzen dituztenean. Horrekin batera, egoera zuzentzeko eta hari aurrea hartzeko neurriak proposatzea du xede.

Gauzak horrela, beren xede eta helburuengatik desberdinak izan arren, zigor edo diziiplina arloan eta EAEPKGBan egitate berberak aldi berean ikertzeko aukera dagoenez gero, azken organo horri zuhurtziazko zenbait neurri ezarri dizkiote legerian, abian dagoen zigor edo diziiplina arloko ikerketa oztopatu edo eragotziko ez duela bermatzeko.

Egia esan, “lotuta” terminoa hitzez hitz interpretatuz gero, Batzordeari ikertzeko aukera oro ukatuko liokete, baldin eta lehenago hasi badira polizia-jarduketa bera aztertzen zigor edo diziiplina arloan. Izan ere, horixe gertatzen da norbait hiltzen denean edo lesio larriak eragiten dizkiotenean, EAEPLren 17.2.b) artikulua arabera. Horregatik, ulertu behar da manuak ez duela aipatzen Batzordearen ikerketen eta zigor edo diziiplina arlokoen arteko edozein lotura-mota. Aitzitik, soil-soilik lotura zuzena eta kualifikatua dagoela agerian uzten dutenak aipatzen ditu, honako alderdi bien artean: epaitegiaren edo diziiplina arloko agintaritzaren aginduz dagoeneko egindako edo egin daitezkeen ikerketak eta EAEPKGBk gauza ditzakeenak.

La labor de esta Comisión se mueve en un plano distinto, que no es el de la legalidad penal o disciplinaria, sino el deontológico. Su propósito no es —ni puede ser— la declaración y depuración de responsabilidades personales, sino la identificación de patrones de conducta o prácticas recurrentes que no resulten acordes con el código deontológico policial o vulneradoras de derechos, así como proponer medidas correctoras o preventivas que pueda revelar el examen externo de una actuación policial.

Ahora bien, aunque sean distintas por su objeto y finalidad, la mera concurrencia de una investigación penal o disciplinaria con la de la CCTPPV sobre unos mismos hechos ha llevado al legislador a imponer a esta última ciertas cautelas que garanticen que no interfiera ni perjudique la investigación penal o disciplinaria en curso.

Ciertamente, una interpretación literal del término “relacionada” llevaría a negar toda posibilidad de investigación a la Comisión cuando antes se haya abierto otra penal o disciplinaria sobre la misma actuación policial, que es lo que ocurre cuando se producen el fallecimiento o lesiones graves de una persona, de conformidad con el artículo 17.2.b) LPPV. Por eso, ha de entenderse que el precepto no alude a cualquier clase de relación entre las investigaciones de la Comisión y las penales o disciplinarias, sino únicamente a aquellas que evidencien una conexión directa y cualificada entre las indagaciones o pesquisas ya practicadas o que puedan acometerse por mandato de la autoridad judicial o disciplinaria y las que pudiera realizar la CCTPPV.



Argiagoa da EAEPKGBren ikerketak eragin dezakeen kaltearen muga. Azken hori hainbat modutan zehaztu ahal izango da, batik bat, gertakarian parte hartu duten polizia-agenteen jokabidearen kalifikazio juridikoari dagokionez, Batzorde honek deontologiaren ikuspegitik egin dezakeen balorazioak baldintzatuta gera daitekeelako.

Nolanahi ere, Batzordeak ikertutako egitateak zigor arloan abiatutako prozeduran ere aztertzen badira, kasu honetan gertatzen den bezala, agintaritza judicial eskudunari horren berri eman behar diola dago ezarrita EAEPLren 19.4 artikuluan, berak dagokiona erabaki dezan, zigor arloko ikerketa eta bere eginbideen erreserba ez eragozteko. Aurrekoaz gain, zigor arloko eginbideetan ikertutako langileak salbuetsita daude EAEPKGBri erantzuteko betebeharrari dagokionez, eta, EAEPKGBk auziari lotutako administrazio-agiriak eskuratu nahi baditu, polizia-atestatua barne, edo ikuskapenak gertakarien lekuan bertan egin, aldeaz aurretik epaile jarduleak onetsi beharko du.

Hirugarrena.- Azaldutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko 4 zenbakiko Instrukzio Atalaren magistratu titularrak, [REDACTED] aurretiazko eginbideen prozeduran, ez du onartu atestatua Batzordeari bidaltzea, auzia ikerketa judicialpean dagoen bitartean.

Erabaki judicialak kendu egin dio hurrengo agirien berri izateko aukera Batzordeari: ikertutako egitateak; jasotako aitorpenak eta txostenak; eta ikertutako polizia-jarduketaren inguruabar guztiei buruzko idatzoharra jasota uzteko legez aurreikusitako dokumentua. Hau da, ezin dugu eskuratu gertatutakoari buruzko informazio-iturri nagusia.

Más claro es el límite del perjuicio que pueda ocasionar la investigación de la CCTPPV, que podrá concretarse de manera diversa y, muy especialmente, en lo atinente a la calificación jurídica de la conducta de los agentes policiales que hayan intervenido en el incidente, en la medida en que pudiera quedar condicionada por la valoración que, desde la óptica deontológica, pudiera hacer esta Comisión.

Sea como fuere, si los hechos analizados por la Comisión son objeto de una investigación penal en curso, como aquí ocurre, el artículo 19.4 LPPV le ordena que lo ponga en conocimiento de la autoridad judicial competente para que esta decida lo que estime necesario con el fin de no interferir en la investigación penal ni en la reserva de sus actuaciones. Además, releva al personal investigado en las diligencias penales de la obligación de colaborar con la CCTPPV y, si esta quisiera acceder a la documentación administrativa relacionada con el caso —lo que incluye el atestado policial— o a la realización de inspecciones in situ, deberá obtener la aprobación previa de la autoridad judicial actuante.

Tercera.- Según se ha expuesto, la Magistrada titular de la Sección de Instrucción del Tribunal de Instancia de Vitoria-Gasteiz, Plaza n.º 4, en el procedimiento de Diligencias Previas [REDACTED], no ha aprobado la remisión del atestado a la Comisión mientras la causa permanezca en investigación judicial.

La decisión judicial priva a esta Comisión del conocimiento del documento legalmente previsto para dejar constancia de los hechos averiguados, las declaraciones e informes recibidos y la anotación de todas las circunstancias de la actuación policial investigada. Es decir, de una fuente principal de información sobre lo sucedido.

Jasota dago irudiak eta bideoak daudela istiluei eta esku hartzen duten ertzainen jarduketak jakin batzuei buruz. Hala ere, egon litezkeen irudiak polizia-jarduketa osoaren testuinguruan kokatu eta baloratu behar dira, hasieratik amaitu arte, ezinbesteko ikuspegi osoarekin. Horrez gain, gogoratu behar da egitate horiek ere osatzen dutela ikerketa judiziala, dagoeneko abiatutakoa. Horregatik, ez ditugu interpretatuko, ezta balioetsiko ere irudi eta bideo horiek, erabaki honi dagokionez.

Azaldutakoa kontuan hartuta, EAEPKGBk ezin izango du -ez orain ezta geroago ere- bere txostena prestatu harik eta epaileak hurrengo erabaki bietako bat hartzen duen arte: lehenengoa, atestatua zein kasuaren gainerako informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera eskaintzea; edo bigarrena, bide judiziala amaitutzat jotzeko ebazpen irmoa ematea, lege izan daitezkeen instantzia eta errekurtsio guztiak agortu ondoren. Beste horrenbeste esan daiteke, gertakari horiei lotutako diziiplina arloko edo barneko eginbideei dagokienez, hala eskatzen duenean.

Laugarrena.- Are gehiago, Administrazioak -kasu horretan, EAEPKGBk- prozedura etetea erabakiko du, organo horrek hartutako erabakiaren berri izan arte, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.g) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Izan ere, hala egitea aurreikusita dago administrazio-ebazpena emateko -hizpide dugunari dagokionez, bere txostena luzatzeko- ezinbestekoa bada organo jurisdikzional batek alde aurretik beste txosten bat luzatzea.

Consta la existencia de imágenes y vídeos relativos a los altercados y a determinadas actuaciones de los agentes intervinientes. Sin embargo, las imágenes que pudieran existir deben situarse y valorarse en el contexto de la actuación policial considerada en su totalidad, desde su inicio hasta su terminación, con la imprescindible visión de conjunto, sin olvidar que los hechos forman parte de una investigación judicial en curso. Por ello, dichas imágenes y vídeos no se interpretan ni se valoran a los efectos del presente acuerdo.

Teniendo en cuenta lo expuesto, la CCTPPV no está en condiciones de elaborar su informe —ni lo estará— hasta que la autoridad judicial apruebe el acceso al atestado y a la demás información relevante del caso, o recaiga resolución firme que ponga fin a la vía judicial, una vez agotadas todas las instancias y recursos legalmente posibles. Otro tanto cabe decir, en su caso, de las actuaciones disciplinarias o internas relacionadas con los mismos hechos.

Cuarta.- A mayor abundamiento, el artículo 22.1.g) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, prevé que, en el supuesto de que para el dictado de una resolución administrativa —en este caso, la emisión de un informe— sea imprescindible que previamente se dicte otra por un órgano jurisdiccional, la Administración —en este supuesto, la CCTPPV— acuerde la suspensión del procedimiento hasta que tenga constancia del pronunciamiento de dicho órgano.

Kasu honetan, Batzordearen txostena egiteko, beharrezkoa da eginbide judizialen helmena ezagutzea eta funtsezko dokumentazioa eskuratzea, gertakariak behar besteko zorrotasunez berreraiki ahal izateko. Hori dela eta, bidezkoa da prozedura geldiaraztea hurrengo egoeretako bat heldu arte: bata, epaile eskudunak Batzordeari baimena ematea eskatutako dokumentazioa eskuratzeko; edo bestea, jarduketa horri lotutako prozedura judizial eta administratiboak behin betiko amaituta egotea.

En el presente caso, la emisión del informe de la Comisión requiere conocer el alcance de las actuaciones judiciales y acceder a la documentación esencial que permita reconstruir los hechos con suficiente rigor. Por ello, procede acordar la suspensión del procedimiento hasta que la autoridad judicial competente autorice el acceso a la documentación solicitada o hasta que estén terminados definitivamente los procedimientos judiciales y administrativos que conocen de dicha actuación.

Azaldutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak,

En virtud de lo expuesto, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco,

HONAKOA EBATZI DU:

ACUERDA:

1.- Geldiaraztea txostena egiteko prozedura, 2025eko urriaren 12an Vitoria-Gasteizen Ertzaintzak egindako jarduketari buruzkoa, hurrengo bi egoeretako bat heldu arte: bata, epaile eskudunak eskuratzeko baimena ematea bere garaian eskatu genion dokumentazioa; edo bestea, behin betiko amaituta egotea jarduketa horri lotutako prozedura judizial eta administratiboak. 4/2025 espedienteari dagokion jarduketa horretan gizonezko bat zauritu zuten, ustez ertzainek jaurtikitako foam bala batek aurpegian jotzearen ondorioz.

1.- Dejar en suspenso la emisión del informe sobre la actuación de la Ertzaintza desarrollada el 12 de octubre de 2025 en Vitoria-Gasteiz, en el transcurso de la cual un varón resultó herido en la cara como eventual consecuencia del impacto de un proyectil de Foam realizado por personal policial (Expediente 4/2025), hasta que la autoridad judicial competente otorgue la autorización de acceso a la documentación solicitada en su día, o estén terminados definitivamente los procedimientos judiciales y administrativos que conocen de dicha actuación.

2.- Jakinaraztea Batzordeak honako erabaki hau osatu, mugatu edo zehaztu ahal izango duela, prozedura geldiarazteko erabakia hartu arren. Horretarako, lehenago jaso behar ditu falta zaizkion agiriak: epaitegikoak, polizia-zerbitzukoak, administratiboak edo teknikoak. Aurrekoaz gain, geldiarazitako prozeduraren helmena berrikusiko du, dokumentazio horren edukia aztertutakoan zerbait aldatu behar izanez gero, zenbait alderdiri dagokionez: aurrekariak, kontuan hartzekoak, alderdi faktikoak, oinarri juridikoak edo erabakitako neurriak.

3.- Bidaltzea Segurtasun Sailera honako Erabaki hau.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 29an.

2.- Hacer constar que la suspensión se acuerda sin perjuicio de que, una vez recibida la documentación judicial, policial, administrativa o técnica pendiente, la Comisión pueda completar, matizar o precisar el presente acuerdo, así como revisar el alcance de la suspensión, si del contenido de dicha documentación resultara necesario ajustar algún antecedente, consideración, extremo fáctico, fundamento jurídico o medida acordada.

3.- Remitir este Acuerdo al Departamento de Seguridad.

Bilbao, a 29 de junio de 2026

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordekoburua
El presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco


Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus